

2010-05-26AN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURA

SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE LA  
CORPORACIÓN. Día 26-05-2010

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Pedro Lasagabaster Armendáriz  
Zinegotziak

Dorleta Leceta Uribetxebarria  
Ander Aguiriano Errasti  
Edorta Barabdiaran García  
Begoña Eraña Lazcano  
Karmelo Leceta Abasolo  
Juan Luis Merino Sanabria  
Ignacio Pierrugues Barberán.

Idazkaria

Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, bi mila eta hamarreko maiatzaren hogeita seian, arratsaldeko seiak eta erditan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Pedro Lasagabaster Armendariz alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, Ohiko bilkuran, gai-zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez dira etorri Okaranza andrea, Otamendi andrea eta Urrutia jauna.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día veintiséis de mayo de 2010, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente D. Pedro Lasagabaster Armendariz, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asiste la Sra. Okaranza, la Sra. Otamendi y el Sr. Urrutia.



## **1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.**

Ondorengo egunetan egindako osoko bilkuretako aktak onartu dira: 2010/04/21, 2010/04/28 eta 2010/05/10.

## **2.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK ETA ERABAKIAK**

### **3.1.- ERABAKIAK**

Alkate jaunak 2010eko maiatzaren 20ra arte hartutako erabakien berri eman du eta horien laburpenaren kopia banatu du.

### **2.2.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK**

#### **MESEDETAKO AMAREN EGOITZA.**

Alkate jauna: guztiok ezagutzen dugu gaiaren garrantzia eta arazoaren larritasuna. Patronoen juntak bilera egin zuen atzo eta bertako kide guztiak onartu zuten irregularitasun oso larriak antzeman direla egoitzaren kudeaketan. Horri buruzko auditoria egiten ari dira eta egungo administratzaileari espedientea irekitzea erabaki zen. Zuhurtasun neurri bezala egoitzaren kudeaketarekin lotutako funtziogarrantzitsuenetik kentzea ere erabaki zen. Uste dugu gure eginbeharra dela guzti horren berri ematea, eta horrela egingo dugu bihar. Bestalde, 2006, 2007, 2008 eta 2009ko kontuen auditoria kontratatzea ere erabaki zen, eta gaur bertain kontratatu zaizkio zerbitzu horiek BETEAN AUDITORES S.L.P. enpresari. 2010eko ekarpenak ordaintzeko Aldundiak jarritako baldintzetako bat kontuak auditatzeko konpromisoa hartzea zen, eta uste dut haratago joan garela, zerbitzu hori kontratatu dugula. Horren berri Gizarte Zerbitzuetako foru diputatuarekin bihar izango dudan bileran emango dut, eta egoitzari buruz hemen, Udaletxean, eta Patronatuan hartutako erabakien berri ere emango diot. Aldundiak jarritako bigarren baldintzari dagokionez, hau da, Aldundiari hilero bidali beharreko datuak Udaleko langile batek baliozkotzea, atzo egindako Patronoen juntan erabaki zen Agurtzane Altube, udaleko gizarte langilea, izatea tramite hori egingo duena, eta juntako kide Pedro Uriberen laguntza izatea lan horretan.

## **3- AMUSKA ELKARTEAREKIN HITZARMENA SINATZEA.**

Gizarte Zerbitzuetako batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera eta bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa:** AMUSKA EMAKUME TALDEAri 1.300 euroko diru laguntza ematea indarrean dagoen aurrekontuko 0303.481.313.70.01 partidaren kontura ondorengo ekintzak finantzatzen laguntzeko:

- Hitzaldiak eta zine foruma..... 350,00 €
- Ikastaroak..... 400,00 €
- Kultur erakusketak ..... 200,00 €
- Mantentze-lanen gastuak..... 350,00 €



**Bigarrena:** Emandako diru laguntzari lotutako baldintzak arautzeko helburuarekin hitzarmena egitea erakunde onuradunarekin honi erantsitako dokumentuan jasotako baldintzetan.

**Hirugarrena:** Berehala ordaintzea emandako diru laguntzaren % 60a, eta Alkateari ahalmena ematea gainontzeko % 40a ordaintzeko erakunde onuradunak justifikatutakoan diru laguntza hitzarmenean jasota bezala erabili duela .

#### **4.- GAIA GAI ZERRENDAN SARTZEA AURREZ BERRESTEA. 2009/2010 IKASTURTERAKO HEZKUNTZA EGITASMO ETA EKINTZETARAKO DIRU LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK ONARTU ETA DEIALDIA EGITEA**

Bertaratutako udalbatzarkideek aho batez berretsi dute gai hau gai zerrendan sartsea.

Ondoren, Kultura batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera eta bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa:** 2009/2010 ikasturterako hezkuntza egitasmo eta ekintzetarako diru laguntzak emateko oinarriak onartea.

**Bigarrena:** Aipatutako oinarietan aurreikusitako diru laguntzitarako deialdia egitea, eta horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea oinarriak.

**Hirugarrena:** 2.700 euroko gastua onartzea 0405.481.422.50.01. partidaren kontura.

#### **5.- BALORAZIO BATZORDE BEREZIA SORTZEA.**

Pertsonal batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera eta bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa:** Balorazio batzorde berezia sortzea, honako hauek osatuta:

- Batzordeburu: Alkatea.
- Batzordekideak:

Udalbatzaren ordezkari:

Udal talde bakoitzeko zinegotzi bat.

Langileen ordezkari:

Oscar Loiti.

Aintzane Elorza

Maria Pilar Biain

Igor Arrate



- Idazkaria: Udal idazkaria (hitzarekin baina botorik gabe)

Justifikatutako arrazoien batengatik batzordekideren batek ezingo duenean bilkuraren batera joan, beste pertsona bat izendatu ahal izango du bere ordez joan dadin. Ordezko hori Udaleko zinegotzia izan beharko da ordezkatua kargu horregatik baldin bada batzordekide; edo plantillako langile, ordezkatua plantillako langile izateagatik baldin bada batzordekide. Idazkaria plantillako funtzionarioren batek ordezkatu ahal izango du.

**Bigarrena:** Balorazio batzorde bereziaren funtzioak:

- 1.- Rodriguez Viñals S.L. enpresak egindako dokumentua oinarritzat hartuta, Udaleko lanpostuen sailkapenari eta katalogazioari buruzko proposamena egitea.
- 2.- Lanpostu batzuei izendatu beharreko osagarri espezifikoak ("dedikazio berezia tarte") aztertu eta proposatzea.
- 3.- Osagarri espezifikoko "tarte orokorraren" balorazio ekonomikoa negoziatzeko osatuko den Negoziazio Mahaiko kide ere izango dira batzordekideak.

**Hirugarrena:** Batzordearen ondorengo funtzionamendu arauak onartzea:

1. Bilkurak baliozkoak izan daitezen beharrezkoa izango da idazkaria egotea eta gutxienez udaleko hiru ordezkari eta langileen bi, horien artean batzordeburua.
2. Erabakiak boto eskubidea duten bertaratutako gehiengo soilez hartuko dira. Horretarako, batzordekide bakoitzak boto bakarra izango du.
3. Bozketan berdinketarik izanez gero, beste bozketa bat egingo da, eta berdinketak jarraituko balu, batzordeburuaren kalitatezko botoak erabakiko du.
- 4.- Batzordearen bilkurak. Pierrugues jaunaren eskariz, Alkate jaunari eskatzea Rodriguez Viñals S.L: enpresako ordezkariei dei diezaiela egingo den lehen bilkurara beraiek egindako dokumentua aurkeztu dezaten. Momentuz ez dakigunez zein egunetan etortzerik izango duten, mahai gainean gelditzen da bilkura egutegia finkatzea.
- 5.- Jarraituko den metodologia. Lehendabizi, aurkeztutako alegazioak alde batera utzita, langileen ordezkariek ekar ditzaketen gai puntualak eztabaideatu eta erabakiko dira, eta ondoren, alegazio horiek jorratuko dira.

**6.- DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEAK KUDEATUKO DUEN II. ENPLEGU TAILER PROIEKTUA ONARTZEA.**

Mankomunitateak II. Enplegu Tailer Proiektua garatzea proposatu du. Proiektu honek prestakuntza eta lana bateratuko ditu, eta arlo soziosanitarioko espezialitatekoia izango da. Gerontologiaren eta oro har erizain laguntzaile, terapia okupazional eta buruko osasunarekin loturiko edukiak landuko ditu prestakuntza arloan. Lan arloari dagokionez, eskualdeko egoitza eta ospitaletan lana egiteko aukera egongo da. 25 urtetik gorako 15



ikasle-langilek parte hartuko dute, prestakuntza kontratuarekin, eta hileko 949,94 € kobrautz. Interes publikoko lanak egingo dituzte. Proiektu honen helburu nagusia langabetuak kualifikatzea eta enplegatzea da.

Proiektu honek guztira 358.499,25 €-ko aurrekontua du eta Mankomunitateak 33.000 € ordaindu beharko du (%9,21). Bere iraupena urtebetekoa izango da, 2010eko ekainaren 1ean hasi eta 2011ko maiatzaren 31n bukatuz eta ikasle-langileek guztira, prestakuntza eta lanean, 1920 ordu sartu beharko dituzte. Udalek 2.200 € ikasleko ordaindu beharko dute.

Zerbitzu hau sortzeko erabakian baldintzatzat ezarri zen Garapen Ekonomikorako Eskualde-Agentzi Zerbitzuan proiektu berriak gauzatu nahi izanez gero, aurrez Udalek bere onesprena ematea.

Aurreko kontuan izanik, aurkeztutako proiektua zehatz-mehatz aztertu ondoren, eta gure eskualdearentzat oro har eta udalerri bakoitzarentzat bereziki onuragarri izan daitekeelakoan, Udalbatzarrak aho batez honako hau erabaki du:

- 1.- Mankomunitateak garatu beharreko Enplegu Tailerraren proiektua onartzea, guztira 358.499,25 €-ko aurrekontuarekin.
- 2.- Mankomunitateak finantzatu beharreko proiektuaren kostea udalen artean banatzea, herri bakoitzetik etorritako ikasle-langile kopuruaren arabera, 2.000 € ikasleko.

## **7.- ELORRETA 26 HIEN ZUZKIDURA-ALOJAMENDUAK SUSTATZEKO ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILAREKIN LANKIDETZA HITZARMENA SINATZEA.**

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak proposatutako hitzarmen zirriborroa ikusi eta aztertuk, Hazienda batzordeak diktamena eman du hitzarmena sinatzeko ondorengo zehaztapen hauekin:

- 1.- Lagako den lurzatiaren izena "Elorreta 26 HIE eremuko konpentsazio proiektuko B2 lurzatia" da.
- 2.- Berariaz honako hau jarri beharko da: "Euskal Autonomia Erkidegoaren kontura eta kargura izango dira Eskoriatzako Udalak Euskal Autonomi Erkidegoari Elorreta HIE 26 eremuko konpentsazio proiektuko B2 lurzatia lagatzeko egingo diren eskriturengatik sor daitezkeen notariotzako, erregistroko eta zerga gastuak, eta baita orokorrean beste edozein gastu ere"

Hitza eman ondoren, Merino jaunak adierazi du hitzarmena sinatzearekin ados baldin badago ere, testuan ez dela jasotzen lur sailaren azalera-eskubidea lagako den edo lur saila jabetza osoan lagako den. Bera azalera-eskubidea lagatzearen alde azaldu da, horrela, 99 urte igarotakoan lur sailaren jabetza Udalari itzuliko zaiola bermatzen baita.

Alkate jauna herriaren jabetza publikoa bermatzearen alde azaldu da subsidiariotasun printzipio argudiatuz, baina aipatu du ez zaiola garrantzí handiko kontua iruditzen horren baitan baldin badago hitzarmena sinatzea edo ez.

Pierrugues jaunak ondorengo testua irakurri du:

*Lehendabizi, Udal bezala poztekoa da Eskoriatzako Udaleko Elorreta Sektorean zuzkidura-alojamendua sustatzeko Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza*



Sailarekin sinatu behar dugun lankidetza hitzarmen honengatik. Eta, bi aldiz poztekoa, bidezkoa baita horrela aitorzea, Udal honetako ia talde politiko guztiok gure hauteskunde programetan gazteentzako alokairuzko etxebizitza publikoak egiteko beharra jasotzen genuelako.

*(Etengabe alokairuan egoteko helburua duten etxebizitza publikoak ez dira inbertsio bat, baizik eta alojamendu zerbitzu bat ematea zenbait kolektibori (etxetik alde egiteko lehen aukera gazteentzat eta bizimoduaren beharretara egokitutako etxeak hirugarren adineko jendearentzat)*

Zuzkidura-alojamenduak bereziki egokiak izan daitezke bizitegi bat prezio merkean alokatzeko premia duten kolektiboentzat, ez dutenak azalera handiegirik behar, zerbitzu jakin batzuk gainerako egoiliarrekin batera erabili ditzaketenak, eta etorkizunean, beren bizitzaren nondik norakoaren arabera, egungoek bestelako bizitegi-premia desberdinak izan ditzaketenak. Gainera, adinekoen kasuan beste premia batzuk kontuan izaten dira, adibidez irisgarritasuna eta osasun-premien ondoriozkoak.

Baina, babes publikoko etxebizitzen artean zuzkidura-alojamenduak berritasun handia izatearen arrazoia “derrigorrezko txandakako izaera” eta horien alokairuaren prezioa eskaintza hori egiten zaien kolektiboentzako egokia izatea da. Txandaketa bermatuta dago, argi eta garbi mugatuta baitago bizileku hauetan bizi daitekeen denbora: kontratuak urte baterako dira, eta urtero luzatu ahal izango dira, gehienez ere lau aldiz. Hau da, pertsona bat gehienez ere bost urtez bizi ahal izango da bizileku hauetan. Denbora hori igarota bizilekua utzi eta etxebizitza merkatu librean edo babestutako beste etxebizitza batzuetan bilatu beharko dute.

Beraz, aldi baterako etxebizitza da. Behin betiko prezioa eskatzailearen diru-sarreren arabera kalkulatzen da eta urtero eguneratzen da. Horrek ere txandaketa errazten du. Izan ere, errenta handitu egiten da gazteek soldata hobeak lortu ahala, eta diru-sarrera jakin batetik aurrera ez da interesgarria alokairuzko apartamentuan bizitzen jarraitzea. Oinarrizko eta ezinbesteko eskakizuna da etxebizitza txiki hauetako bat lortu gura dutenentzat babes publikoko etxebizitzari buruzko EAEko araudiaren parametroak betetzea: 30.000 eta 35.000 euro arteko diru-sarrerak izan eta etxebizitzarik ez izatea.

*Bigarren, Udalbatzarrari proposatu gura diot Eskoriatzako Udaleko Elorreta Sektoreko txandakako zuzkidura-alojamenduen sustapenari Juan de Azcarretazabal izena ematea, bere izena, gaur egun ahaztua, herriak izan duen ongile handienetako bat bezala gogoan izan dezaten Eskoriatzako herritarrek. Azkarretazabalek izan zuen berari eskainitako kale bat, baina izena aldatu zitzaion Eskoriatzako beste ongile batena, Celestino Aranburuzabala, jartzeko.*

*Juan de Azkarretazabalek, Eskoriatzan jaioak, Potosi hirian, Perun, egin zuen testamentua 1587. urtean. Testamentuan bi mila dukat eman zituen bere seme Pedro de Azcarretazabalek ospitale bat eraiki zezan aitaren jaioterrian erromesei aterpea, atsedena, zaintza eta jana emateko. Berak hala nahita, Errosario Santuaren ospitalea izena eman zitzaion, -gaur egun San Viator izenez ezagutzen dugun eraikina-, Eskoriatzan izan diren ospitaleentzako erreferente izan zena.*



Pierrugues jaunak parte hartu ondoren, Alkate jaunak, aurrekoetan egin bezala, erabaki du Kultura batzorde informatzaileari pasatzea proposamena, proposatutako izena batzorde horretan aztertu eta horri buruzko diktamena eman dezan.

Ondoren, Hazienda batzorde informatzailearen diktamena bozkatu da, eta Merino jaunaren abstentzioarekin eta bertaratutako gainontzeko udalbatzarkideen aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa:** Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailarekin Elorreta 26 HIEn zuzkidura-alojamenduak sustatzeko proposatutako lankidetza hitzarmena sinatzea Hazienda Batzorde Informatzaileak egindako zehaztapenekin.

**Bigarrena:** Ahalmena ematea Alkate jaunari aipatutako hitzarmena sinatzeko Udal honen izenean eta ordezkaritzan.

#### **8.- AURREKO URTEETAN ONARTUTAKO ESKUBIDEEI BAJA EMATEA.**

Hazienda batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa:** Baja ematea aurreko ekitaldietan onartutako eskubide hauei:

(*)KONTZEP/EPEA/Z KIA	ZENBATEK OA	ZERGADUNA	ZERGATIA
001.200201.1171	53,25	Josu IZURRATEGUI SUSO	2001eko ibilgailuaren baja
001.200301.1200	54,85	Josu IZURRATEGUI SUSO	2001eko ibilgailuaren baja
001.200401.1229	56,50	Josu IZURRATEGUI SUSO	2001eko ibilgailuaren baja
001.200501.1265	58,30	Josu IZURRATEGUI SUSO	2001eko ibilgailuaren baja
001.200601.1283	60,63	Josu IZURRATEGUI SUSO	2001eko ibilgailuaren baja
001.200701.1356	62,87	Josu IZURRATEGUI SUSO	2001eko ibilgailuaren baja
001.200801.1410	65,57	Josu IZURRATEGUI SUSO	2001eko ibilgailuaren baja
002.200702.683	25,31	José FRUTOS PAVO	Zaborraren tasan bi aldiz alta emanda.
002.200801.676	36,04	José FRUTOS PAVO	Zaborraren tasan bi aldiz alta emanda.
002.200802.680	36,04	José FRUTOS PAVO	Zaborraren tasan bi aldiz alta emanda.
002.200901.698	39,64	José FRUTOS PAVO	Zaborraren tasan bi aldiz alta emanda.
002.200902.701	47,63	José FRUTOS PAVO	Zaborraren tasan bi aldiz alta emanda.

**Bigarrena:** Zerrenda horretatik oker kobraututako ordainagiriak itzultzea.



## **9.- MARIA DOLORES ZUBIZARRETA ANDREARI LURRAK EROSTEA APARKALEKUAK EGITEKO.**

Hazienda batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa:** Maria Dolores Zubizarreta Aguirre andreari bere jabetzako lur saila erostea. Lur sail hori honela deskribatuta dago erroregistroan:

a.- Eskoriatzako jurisdikzioan egon eta Gala-Eche izenez ezagutzen den lurzatia, honako mugak dituena: iparraldetik, bidezidorrearekin; ekialdetik eta hegoaldetik, errepidetik Apozagara doan bidearekin; eta mendebaldetik, Michel-Iturria errekastoarekin eta banandutako lur sailarekin. Erregistroan jasotako azalera 2.925 m<sup>2</sup>-koa da, eta katastroaren arabera 1.677 m<sup>2</sup>-koa, kontratu honekin batera doan planoan ikusten den bezala.

**Bigarrena:** salerosketaren prezioa HAMALAU MILA BEDERATZIREHUN ETA LAUROGETIA HIRU EURO ETA BERROGEITA HAMAR ZENTIMOTAN (14.983,50 €) finkatzea.

**Hirugarrena:** Salerosketa ondorengo baldintza partikularren arabera egitea:

**3.1.-** Egun honetatik kontatzen hasita hamar urteko epean eta hirigintza antolamendua berrikusi ondoren lurraren klasifikazioa aldatuko balitz, Eskoriatzako Udala derrigortuta dago saltzaileari edo legezko bere oinordekoei salerosketa honetan ordaindutako kopuruaren eta araua aldatzearen ondorioz hirigintza aprobetxamentuetatik sortutako lur sailaren balorazio berriaren arteko aldea osorik ordaintzera.-----

**3.2.-** Notariotzako gastu guztiak, Jabetza erroregistroan inskribatzearrenak eta salerosketa eskritura egititik sortutako zerga guztiak Eskoriatzako Udalaren kontura eta kargura izango dira, saltzailearen kontura izango den hiri lurren balio igoeraren gaineko zerga izan ezik.-----

**Laugarrena:** 14.983,50 €-ko gastua onartzea indarrean dagoen aurrekontuko 0101.600.432.00.01 partidaren kontura.

**Bosgarrena:** Alkate jaunari ahalmena ematea eros i beharreko finka Udal honen izenean erroregistroan inskribatu arte beharrezko diren dokumentu publiko eta pribatuak sinatzeko.

## **10.- MESEDETAKO AMAREN EGOITZAKO PATRONOEN JUNTAKO UDAL ORDEZKARIARI BURUZ UDALBATZARRAK HARTUTAKO ERABAKIA BALIOGABETZEA.**

2007ko uztailaren 12an, Udalbatzarrak ondoren esango diren pertsonak MESEDETAKO AMAREN ZAHARREN EGOITZAN udal ordezkarri izendatzeko erabakia hartu zuen:



Pedro Lasagabaster Armendáriz jauna  
Begoña Eraña Lazkano andrea

Lasagabaster jauna Alkate zelako izendatu zen, eta Eraña Andrea, 2007ko uztailaren 13ko Alkate erabakiz, gizarte zerbitzuetako zinegotzi arduraduna zelako.

Bere garaian Gizarte Zerbitzuetako zerbitzuaren gainean egindako izendapena baliogabetu zuen Alkateak 2008ko maiatzaren 5ean. Egun horretatik aurrera Dorleta Leceta Uribeetxeberria zinegotzi andrea da funtzi horiek bete eta horregatik parte hartzen ari dena Mesedetako Amaren Egoitzako patronoen batzordean.

Aurrez esandako guztiarengatik, Hazienda batzorde informatzailearen proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiengatik, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa:** Kontuan izatea 2008ko maiatzaren 6tik Begoña Eraña Lazkano andreak ez duela parte hartzen Mesedetako Amaren Egoitzako patronoen batzordean aurrekarietan adierazitako arrazoiengatik, eta Dorleta Leceta Uribeetxebarria dela batzorde horietara joaten dena.

**Bigarrena:** Dorleta Leceta Uribeetxebarriaren ordezkaritza berrestea eta Begoña Eraña Andrea kargutik kentzea atzeraeraginezko ondorioekin 2008ko maiatzaren 6tik hasita.

#### **11.- EGOITZAKO ERAIKINARI BURUZ UDALBATZARRAK HARTUTAKO ERABAKIA BALIOGABETZEA.**

Udal idazkariak Hazienda batzorde informaitzaileak egindako diktamenea irakurri du.

Ondoren, honako parte hartze hauek izan dira:

Eraña andrea: atzo, izen zenuten patronoen juntan, horri buruz hitz egin zen? 4. puntuarekin ados zeundeten?

Alkate jauna: horri buruz hitz egin zen, baina, Begoña, ulertuko duzunez, hori batzorde batean jorratu zela komentatu nuen nik. Gogoratu nuen hemen dauden azken hiru puntuak Udaleko batzorde horretatik patronoen juntara eraman zirela orain dela urte bete, eta Udalarekin zerikusirik ez daukaten hainbat arrazoiengatik atzeratu egin direla eta orain udalbatzarraren bidez egin behar genuela oraindik ere formalitasun handiagoa emateko. Edozein modutan ere, hori gogorarazi nien. Ezin nuen esan, orain ere esan ezin dudanez, ezer bozkatu aurretik bozketaren emaitza zein izango zen. Nire iritziz, hau dena, behin bozkatuta, patronatuari jakinarazi behar zaio ofizialki, baina, bai aurreratu niela erabakiaren edukia, batez ere, iazko erabakiko puntueman jasotzen ez zen berritasun bat duelako: fundazioa titularitate publikokoa izatea, hemen proposatzen dugun udalbatzarraren erabakian 4. puntuaren jasotzen dena. Zentzu horretan, eta lehen esan dut eta orain erreparatzen dut, orain aztertzen ari garena momentu historikoa iruditzen zait. Hau da, historikoa iruditzen zait Jose Arana jaunak, orain dela 100 urte Eskoriatzako herriarentzat diru bat eman zuelako Eskoriatzan zaharrentzako egoitza egiteko, eta nire ikuspuntutik, 100 urteotan ez da izan Eskoriatzako herriarena, nire ikuspuntutik bertan ordezkaritza izan dutenek ez zutelako Eskoriatzako herria ordezkatzen. Ulertzen dut ere egoera historikoak aldatu egiten direla eta abar, eta historikoa iruditzen zait kontraesan txikia bada ere edo handia, nire iritziz, egoera horrekin amaitzea, eta baita, edo bakarrik, Eskoriatzako udal hau esaten ari delako Eskoriatzako herriarentzat hain garrantzitsua eta beharrezkoa den egoitza bezalako titularitate pribatuko gauza bat udal titularitate publikokoa izatera igarotzea. Zure galderari erantzuteko, atzo komentatu nuen; eta gura baduzu, esango dizut bertan komentatu zena. Apaiza, fundazioko presidente dena, erabat alde agertu zen. Egoitza titularitate publikokoa izatearen alde erabat ados agertu zen bai



fundazioko presidente bezala, bai patrono bezala, nagusiki, nik orain esan dudan gauza berarengatik. Dorletak eta neuk diktamenean jasotakoaren bidetik jo genuen, eta gainera Sor Teresa eta Pedro Uribe ere izan ziren. Sor Teresak esan zuen hori ikusteko zegoela eta Pedro Uribek bere garaian hitz egin zuenaz hitz egin zuen, berarentzat Eskoriatzako herria ez zela Udalak ordezkatzet zuena bakarrik. Hori da atzo hitz egin zena, baina, nolabait, modu informalean hitz egindakoa. Eta hori da pixka bat puntu horri buruz komentatu nahi nuena. Dena den, laugarren puntu horrengatik historikoa iruditzen zait orain hemen erabaki behar duguna, erabakitzet baldin badugu, behintzat.

Eraña andrea: nik zalantza bat dut, jakin mina, zuk esandakoaren gaienean, zergatik uste duzu Eskoriatzako herria ez dagoela ordezkatuta?

Alkate jauna: indarrean dauden estatutuak bi izan daitezkeela uste dudalako. Eta azken batean, estatutuak direlako patronatua arautzen dutenak. Bata, XX. mende hasierako estatutua da, 1914-1916koa, batzuek ezagutuko duzuen liburuxka, eta bertan, gaizki ez badut gogoratzen, Eskoriatzako herriaren ordezkariak eliza katoliko eta erromatarren 3 ordezkari dira.

(Zuzendu egin zaio, 2 baitziren, apaiza eta laguntzailea)

Jarraitzet du: bueno, ez du axola, uste dut batak ere ez duela Eskoriatzako herria ordezkatzen, eliza katoliko eta erromatarra ordezkatuko dute, lehen eta orain; hasteko, hori da uste dudana.

Eraña andrea: hori baita Aranak esan zuena, ez? Berak eman zuen dirua.

Alkate jauna: ez, ez. Aranak bere testamentuan "Eskoriatzako herriari ematen diot" esan zuen, eta gero beste batzuek testamentua aztertu eta estatutuak egin zituzten. Eta esan izan balu ere, berdin zait, niretzat kontraesana da esatea "hau Eskoriatzako herriari usten diot" eta osaera horretako patronatua egitea. Gainera, beharbada, are larriagoa, ez dakit, edo nahi duzun besteko kontraesana, uste dut beste 2 patronoz, 2 edo 3, zergadun handienetakoak, hitz egiten zela, hau da, herri honetako aberetsenetakoak. Hori ere ez dela Eskoriatzako herriaren ordezkartzera iruditzen zait. Eta gero Alkateaz eta sindikoaz hitz egiten zuen, uste dut sindikoa mendien kudeaketarekin lotuta zegoela. Ba, beharbada, bi horiek; baina, iruditzen zati Eskoriatzako herriaren ordezkartzera Eskoriatzan gutxi gorabehera egon daitezkeen sentsibilitate politiko desberdinak eta gaiarekin lotutako elkarrekin ordezkatuko dituen zerbaiztiztan behar dela. Eta estatutu horrek ez dio hori. Eta, gero, beste aukera bat dago, niretzat egokia dena, baina ez daukat garbi, auditoriekin ikusiko dugu, eta fundazioen erregistroari egindako galderen ere bai, egia esateko, egoitzan 3 urte baitaramatzat eta galdetuta estatutuak hauetan diren edo beste horiek, ez dut erantzunik izan. Uste dut zu horren lekuarena izan zarela neurri batean. Beste aukera da, diot, nire ustez 2005an gutxi gorabehera edo 2006an edo 2007an onartzen ahalegindutako estatutuak izatea. Ez dakit, gu hemen sartu aurretik behintzat, eta horietan, ez da 2 aberatsenak edo Eskoriatzako aberatsenen 2 ordezkari aipatzen, badirudi egungo garaietara egokitu garela pixka bat, baina, apaizaz hitz egiten jarraitzen da. Egoitzan zeuden mojen ordezkari batez, ahotsarekin baina botorik gabe, ez ezik, ordezkari hori botoduna izateaz hitz egiten jarraitzen da. Hau da, elizako kide bat kentzen dugu, baina, beste bat sartzen dugu botoarekin! Nire ustez horrek eliza katoliko eta erromatarra ordezkatzen du, ez Eskoriatzako herria, edo beharbada, eta beste ikuspuntu batetik begiratuta, egoitzako langileak, ez dakit. Eta bi pertsona ere bertan dira, orain ez dira aberatsenak, ez dakigu ondo zeintzuk diren pertsona horiek eta zergatik dauden bertan, esaten da eskubide osoko kideen artetik aukeratuko direla, eta ez zait iruditzen horiek ere Eskoriatzako herria ordezkatzen dutenik. Nik ez dut esan nahi Eskoriatzako herria bakar bakarrik Udalak ordezkatzet duenik, ez dudalako uste horrela denik, Eskoriatzako herria Udala baino askoz gehiago delako, horrela pentsatu izan dut beti eta pentsatuko dut, ustez. Baina, nire iritziz hori titularitate publikokoa izan behar da eta egoitza bezalako gauza hain garrantzitsu batean Udala Eskoriatzako herriaren ordezkari nagusia izan behar da. Uste dut, gardentasun falta, okultismoa, kudeaketan egon den arduragabekeria neurri handi batean esan dudan horrengatik



guztiarengatik dela, herriko ordezkartzaren antolaketa garbi eta gardenaren falta, eta horregatik, uste dut hori oinarrizkoa dela, orain inoiz baino gehiago, titularitate hori aldatzea, eta bueno, uste dut horrekin erantzun dizudala nire ustez zure galdera izan den horri. Bainan, soilik, nire iritzia da.

Eraña andrea: nik ez dut uste inolako okultismorik egon denik, ez behintzat jakinaren gainean eta maltzurkeriaz eginda. Ez dut esango udalekotzeari buruz esaten ari zarenaren aurka nagoenik. Ez dut esango horren guztiaren aurka nagoenik. Bainan, ez dut uste 100 urte hauetan hor egon diren pertsonak okultismoz aritu direnik edo ez dakit nola ibili direnik, modu txarrean edo ...

Alkate jauna: nik ez dut hori esan.

Eraña andrea: bueno, okultismoz edo gauzak gaizki eginez. Nire ustez egoitzak orain arte funtzionatu du modu batera, lehenengo neskentzako eskola izan zen eta gero egoitza izatera pasa zen, uste dut funtzionatu duela. Ez dut uste kudeaketa txarrik egon denik, ezin dela orokorrean horrelakorik esan. Dugun kasuarekin gaude, eta ez naiz sartuko nabaria dela uste dudan zerbait defenditzera, Bainan, ez dut uste, orokorrean egotzi daitekeenik, ezin da, ez dakit, inori egotzi, jendeari... uste dut ezetz, uste dut ezetz. Beste kontu bat da orain historiaren beste momentu batean egotea, Aldundia arduratuko dela, esan dezagun, udal egoitzez eta une egokia izan daitekeela. Ez dut uste arrazoi hori orain arte egindako guztia bertan behera usteko motiboa denik. Uste dut unean uneko egoeraren eta zegoenaren arabera egin dela, eta uste dut guztiz errespetagarria dela. Beste kontu bat da orain une ezberdinean egotea, eta esatea: XXI. mendean gaude, zer egingo dugu? Bainan, ez dut uste orain arte egin izan dena pikutara bidali behar denik, aztertzen ari garena salbu. Bainan, beste guztia uste dut ezetz.

Alkate jauna: nik ez dudanez hori ezagutzen, ez baita gardena izan, eta horri buruz uste dut ezin didazula ukatu...

Eraña andrea: zu azken kasuan oinarritzen zara.

Alkate jauna: ez, ez! Ez ba! Nik, txikitán, egoitzaren ondoan ikasi nuen eta bertan bizi zen jendea ezagutu nuen eta banekien han zer zegoen, lekuren batean.

Eraña andrea: zuk umetan ez zeneukan ideiarik ere egoitzan zegoenari buruz, bertan ibiltzen ginen umeetako batek ere ez genekeen moduan. Beharbada nik zerbait gehiago nekien nire inguruan zebiltzan neskak bertakoak zirelako. Hori ere ezingo dugu orain aurpegiratua. Zu pertsona inteligentea eta argia izan zaitezke, baina, zuk umetan ume moduan jokatzen zenuen eta orain ezin duzu pikutara bidali aurreko 100 urtekoa. Beste kontu bat da orain aldatu ahal izatea.

Alkate jauna: Ez didazu ulertu, Begoña

Eraña andrea: bai, ondo baino hobeto ulertu dizut. Ez dakit niri ulertu didazuen esan gura izan dudana. Nik uste dut errespetu osoa merezi dutela hor egon diren pertsona guztiak beraien borondate onenarekin, fede onez aritu baitira. Fede onez, erabat, eta orain aldaketa ordua iritsi dela, bada, behar bada, bai!

Alkate jauna: nik ez dut hortaz hitz egin, nik ez dut pertsonen “fedeaz” hitz egin.

Eraña andrea: gauza larriez aritu zara, okultismoaz hitz egin duzu.

Alkate jauna: okultismoaz eta gardentasun faltaz.



Eraña andrea: bere garaian ez zegoen okultismorik edo gardentasun faltarik. Nik uste dut jakin gura zuenak egoitzara joanez gero kontatuko ziotela. Gertatzen dena da orain arte ez zarela galdeztzeroa joan, azken hiru urte hauetan eginbeharra izan duzunera arte.

Alkate jauna: tokatu zaidanean, nire betebeharra izan denean.

Eraña andrea: bueno, orain arte, betebeharra izan duzunean joan behar izan zara.

Alkate jauna: nola dakizu zuk hori Begoña?

Eraña andrea: zuk esan duzulako orain “tokatu zaidanean, nire betebeharra izan denean”. Zuk erantzun duzu hori orain.

Alkate jauna: nola dakizu ni ez nintzela joan edo nik ez nuela hori ezagutzen?

Eraña andrea: nik esan gura dudan gauza bakarra da ez dudala uste hor borondate onez eta on eginez aritu diren pertsonei ezer egotzi daki keenik. Beharbada aldaketa garaia iritsi da, ados nago, ez dut ezetzik esango, baina 100 urteko lana pikutara bidali ez, ez horixe!

Alkate jauna: ez, 100 urte, ez 50 ez 25.

Eraña andrea: ez okultismorik ez horrelako ezer, ez.

Alkate jauna: bueno. Hori zure iritzia da, nik errespetatzen dut, eta zuk uste dut zuk nirea errespetatu beharko duzula.

Eraña andrea: ni ere errespetatzen ari naiz. Zuk zeurea eman duzu eta nik neurea eta kito.

Alkate jauna: ongi! Ñabardura bat. Zuk galdezu didazu zergatik uste dudan nik hori titularitate publikoak izan behar den eta zergatik uste nuen Eskoriatzako herria ez zuela ordezkatzen, eta nik horri erantzun diot. Ez dut esan hor egon diren pertsonek fede txarrez edo gaizki aritu direnik. Esan dut kudeaketa txarra izan dela, nire ustez, orokorrean.

Eraña andrea: 100 urtetan?

Alkate jauna: bai, orokorrean.

Eraña andrea: zer dakizu zuk hortaz?

Alkate jauna: bueno, ondo! Ez dut inolako ezagutzarik. Ni ez naiz zure ezagutzaz aritzen, Begoña. Hitz egin nezake, baina, ez dut hitz egiten, bale?

Eraña andrea: nik ez dut nire ezagutzaz hitz egin. Baina, 100 urtetan.

Alkate jauna: ez duzu hitz egiten nire ezagutzak. Horiei buruzko iritzia izan dezakezu, baina, ez dituzu ezagutzen. Eta, errespetatu itzazu, neska!

Eraña andrea: urteengatik diot.

Alkate jauna: baditut banaka batzuk. Errepikatzen dizut. Nik galdezu didazunari buruz erantzun dizut eta gainera esan dizut nire iritziz erakunde horretan okultismoa eta kudeaketa txarra egon dela orokorrean, eta horrekin ez dut pertsonei faltatu gura izan, eta ezta fede txarrez egin direnik esan. Nik ez dut hori esan nahi izan, bai?



Eraña andrea: lerro artean ez dakit zer ulertu dakizukeen.

Alkate jauna: bueno, zuk ulertu duzu eta nik esaten dizut ez dudala hori esan nahi izan. Baino, bai okultismoa eta kudeaketa txarra, eta errepikatzen dut. Beharbada nire iritziz eta nire ezagutzetatik. Baino, nik ez dizut zure ezagutzaz eta iritziez hitz egin

Eraña andrea: ez, nik neureez hitz egiten dut.

Alkate jauna: azken finean, ez dugu ping-pong partida bat jokatu behar hemen, Begoña;uste dudalako une historiko batean gaudela eta beste batzuek ere hitz egitea gura dutela.

Eraña andrea: guztiz ados.

Alkatea jaunak hitza eman die gainontzeko zinegotziei.

Pierrugues jauna: nik gaurko egoeraz hitz egin gura dut, eta gaurko egoerari lotuz, bada, Eskoriatzari buruzko Trankilen ohar monografikoak irakurtzen nengoela, bertan, XVIII. kapituluan, ospitalei buruz hitz egiten duenean niretzat gaur egungo egoerarako egokia den aipamena egiten du. (Ondorengo testua irakurri du)

*“Ez litzateke bidezkoa izango ohar hauek Juan de Mondragón Azkarretazabal merezí zuen bezala gogoratu gabe amaitzea. Begiaurrean liburuxka bat daukat, Eskoriatzako Merzedetako Ospitalerako egin zen Araudi Organikoa duena. 1915 urtea. Juan de Azkarretazabal aipatzerakoan honela dio: La desgraciada inversión de caudal, acaso de apatía de los patronos y administrador y, por último, las leyes desamortizadoras en el ramo de la beneficencia en las postrimerías del reinado de Carlos IV dieron triste fin y remate, a esta espléndida fundación benéfica, hasta tal punto, que a principios del siglo XIX habían desaparecido y perdido todas sus rentas y capital. El suntuoso edificio Hospital pasaba a poder de particulares, y la beneficencia local que de tan gran prosperidad había gozado durante dos siglos, había quedado reducido a la nada, hallándose los pobres e indigentes de la localidad sin pan ni albergue que los cobijase. Triste enseñanza, pero enseñanza, al fin, para que los patronos de la beneficencia pública obedezcan al imperativo categórico del deber; hagan caso omiso del aplauso o censura, del halago o de las amenazas, se despojen de todo egoísmo y lucro propio, y como deber estricto de conciencia y elevándose de la miseria humana, con celo, interés y actividad cumpliendo la voluntad de los fundadores, administrando con toda rectitud y procuren la prosperidad de unos bienes que deben considerarse sagrados, pues son patrimonio exclusivo de los pobres.*

Eta bukaeran dio: *“Es deber nuestro y lo cumplimos muy gustosos al rendir este tributo de gratitud y reconocimiento a D. Juan de Mondragón de Azcarretazabal, para que su nombre, ya olvidado, lo tengan presente los hijos de Eskoriatza como uno de los mayores bienhechores del pueblo”.*

19:55ean eta Pierrugues jaunak aurreko testua irakurtzen zuen bitartean Merino jauna bilkura aretotik atera da minutu batzuetarako. Pierregues jauna hitz egiten ari zela sartu da berriz.

Pierrugues jaunak jarraitzen du: ez dakit! hori aurreko egun batean irakurri nuen eta, kontxo! Esan nuen, ez dut nahi azken 100 urteetako laburpenik egin gura, baina, bai egungo testuinguruaren.

Eraña andrea: egungo testuinguruaz hitz egin dezakegu, baina, orain dela 100 urtekoaz...



Alkate jauna: beste gauza batzuetaz ere hitz egin dezakegu, beste kontu bat da ados egotea edo ez.

Parte hartzeak amaiturik, eta kontuan izanik 2008ko azaroaren 28an Udalbatzarrak, aurrez herri konsulta egin ondoren, honako erabaki hau hartu zuela:

**Lehenengoa:** Mesedetako Amaren Egoitzako patronoen batzarrean Udal honek dituen bi ordezkariek C AUKERAREN alde botoa ematea aipatutako batzarrak erabakia hartzeko deituko duen bileran. Aipatutako aukeraren edukia honako hau da:

**Eraikina:** Gaur egun dagoen eraikina BOTA egingo da eta eraikin BERRIA EGINGO DA

**Zerbitzua:** Zerbitzuaren kudeaketa pribatua izango da eta GSR izeneko enpresa kontzertatua arduratuko da egoitzaren kudeaketaz (zesioa 20 urte). Hau da, bera izango da egunean-egunean sortzen diren beharrei erantzun beharko diena. Plaza kopurua aldatu egingo da eta gaur egun dauden 32 plazaz gain, beste 24 plaza berri sortuko dira. Plaza berri horiek behar psikogeriatriko arinak dituztenei erantzuteko izango dira

**Kostua:** Teknikarien esanetan **4,5 milioi euroko** kostu minimoa izango du obra honek. Gastua honela banatuko da:

Eskoriatzako herriak 0 €  
Gipuzkoako Foru Aldundiak 2.250.000 € (%50)  
GSR enpresak 2.250.000 € %50)

Beranduago, Gipuzkoako Foru Aldundiak hasierako irizpideak aldatu zituen, eta hain zuzen ere, herritarrei egindako konsultaren C aukera horietan oinarritzen zen. Behar psikogeriatriko arinak dituztenentzako errekurso berria izan behar zena buru-gaixotasun larria duten pertsonentzako egoitza-arreta emateko baliabide soziosanitario berria bihurtu zen; eta Aldundiaren eta GSR-ren obren finantzazioak % 100 izateari utzi zion, Eskoriatzako herriak ere finantzazio horren zati bat bere gain hartu beharko duelarik.

Aldaketa horrek lehengo C AUKERA edukirik gabe uzten duela jotzen dugunez, eta Udal honen apustua herri izaerako egoitza izanik, kudeaketa eta laguntza kalitatea familiarragokoa eta pertsonalizatuagokoa, egoitza handien eredutik urrun; Hazienda batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau erabaki du:

Lehenengoa: 2008ko azaroaren 28an hartutako erabakiak baliogabetzea eta Mesedetako Amaren egoitzako Patronatuaren juntan Udalak dituen bi ordezkariek honako hau proposatzea junta horretan:

- Egungo eraikina birgaitzearen alde egitea eta lan horiek kontratazio administratiboaren printzipioen arabera esleitu eta finantzatzeko konpromisoa hartzea.



- Aldundiarekin negoziatzea egoitzako plazak itunduak izan daitezela eta obrak egin arte behin-behineko baimena luzatzea.
- Gipuzkoako Foru Aldundiarekin beharrezko gestioak egitea egin gura diren obrak finantzatzea ahalbidetzeo diru laguntza jasotzea.
- Gaur egun Fundazioak ematen duen zerbitzua Udal titularitatekoa izan dadin beharrezko erabakiak hartu eta egin beharreko tramiteak egin ditzala eskatzea Patronatuari.

## **12.- KALE GARBIKETA ZERBITZUA EMATEKO KONTRATUAREN LUZAPENA. KONTRATAZIO ESPEDIENTEARI HASIERA EMATEA ETA KONTRATAZIOA ARAUTUKO DUEN BALDINTZA AGIRIA ONARTZEA.**

Merino jaunak eskaturik, bereizita bozkatuko dira kontratua luzatzeari buruzko proposamena eta kontratazio berria egiteko espedientea hasteari buruzkoa.

Horrela, aurrez eztabaidatuta, Obrak eta Zerbitzuak azpibatzordearen proposamenez Hirigintza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa:** 2002ko maiatzaren 30eko erabakiz CESPA S.A. enpresari esleitutako kontratua 2010eko uztailaren 14ra arte (egun hori barne) luzatzea. Kontratuaren gaia herriko kaleak garbitzeko zerbitzua ematea da. Kontratuaren luzapena CESPA S.A. enpresarekin hitzartutako eta 2010eko maiatzaren 20an enpresak egindako eskaintzan agertzen diren aldaketen arabera egingo da, epemuga hori luzatzearen kaltetan gabe egun horretarako Udalari edo esleipendunari egotzi dakizkiekeen arrazoientagatik ez baldin badira amaitu esleipen prozedura berriko tramite guztiak. Luzapen aldirako kontratuaren prezioa hileko 11.589,23 €-tan ezarri da (BEZ gabe).

**Bigarrena:** Gastua onartzea 0102.227.442.20.01. partidaren kontura.

Ondoren, Obrak eta Zerbitzuak azpibatzordearen proposamenez Hirigintza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Merino jaunaren aurkako botoarekin eta bertaratutako gainontzeko udalbatzarkideen aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa:** Herriko kaleak garbitzeko zerbitzu publikoaren kudeaketa prozedura ireki bidez kontratazko espedientea onartzea, eta baldintza ekonomiko-administratibo partikularren agiria eta baldintza teknikoen agiria onartzea.

**Bigarrena:** Lehiaketarako deialdia egitea, eta horretarako iragarkia jartzea GAOn.

**Hirugarrena:** Gastua 2010, 2011 eta 2012ko aurrekontuen kargura esleitzea.

**Laugarrena:** Kontratazio Mahaiko kide Hirigintza batzorde informatiboko kide diren zinegotziak izendatzea.

Botoaren justifikazioa: Merino jaunak aurka bozkatu du, uste duelako zerbitzu hori Udalak zuzenean eman beharko zuela, hau da, plantillako langileekin, eta ez zeharka enpresa baten bidez.



### **13. BERDEGUNEAK, PARKEAK, LORATEGIAK ETA ZUHAITZAK ZAINTEKO ETA MANTENTZEKO KONTRATUAREN LUZAPENA. GUNE HORIEK MANTENDU, ZAINDU ETA GARBITZEKO ZERBITZUA ESLEITZEKO KONTRATAZIO ESPEDIENTE BERRIARI HASIERA EMATEA ETA KONTRATAZIOA ARAUTUKO DUEN BALDINTZA AGIRIA ONARTZEA.**

Obrak eta Zerbitzuak azpibatzordearen proposamenez Hirigintza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa:** 2002ko maiatzaren 30eko erabakiz LANDU S.L. enpresari esleitutako kontrataua 2010eko uztailaren 31ra arte (egun hori barne) luzatzea. Kontratuaren gaia berdeguneak, parkeak, lorategiak eta zuhaitzak zaindu eta horien mantentze-lanak egiteko zerbitzua ematea da. Luzapen aldirako kontratuaren prezioa 17.460 eurotan ezarri da (BEZ gabe). Kontratuaren luzapena indarrean dauden baldintzen arabera egingo da, epemuga hori luzatzearen kaltetan gabe egun horretarako Udalari edo esleipendunari egotzi dakizkieken arrazoiengatik ez baldin badira amaitu deitutako esleipen prozedura berriko tramite guztiak.

**Bigarrena:** Gastua onartzea 0102.227.434.00.15 partidaren kontura.

Ondoren, Obrak eta Zerbitzuak azpibatzordearen proposamenez Hirigintza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Merino jaunaren aurkako botoarekin eta bertaratutako gainontzeko udalbatzarkideen aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa: Eskoriatzako udalerriko berdeguneak, parkeak, lorategiak eta pasealekuetako zuhaitzak zaintzeko, horien mantentze-lanak egin eta horiek garbitzeko zerbitzu publikoaren kudeaketa prozedura ireki bidez kontratatzeko expedientea onartzea, eta kontratazioa arautuko duten baldintza ekonomiko-administratibo partikularren agiria eta baldintza teknikoen agiria onartzea.**

**Bigarrena:** Lehiaketarako deialdia egitea, eta horretarako iragarkia jartzea GAOn.

**Hirugarrena:** Gastua 2010, 2011 eta 2012ko aurrekontuen kargura esleitzea.

**Laugarrena:** Kontratazio Mahaiko kide Hirigintza batzorde informatiboko kide diren zinegotziak izendatzea.

Botoaren justifikazioa: Merino jaunak aurka bozkatu du, uste duelako zerbitzu hori Udalak zuzenean eman beharko zuela, hau da, plantillako langileekin, eta ez zeharka enpresa baten bidez.

### **14.- GOBERNU ZENTRALAREN NEURRIEI BURUZ EB-K AURKEZTUTAKO MOZIOA.**

Hitza eman ondoren, Merino jaunak ondoren osorik transkribatzen den mozioaren xedapena irakurri du.

*Espainiako estatuak krisi ekonomiko egoera oso larria bizi du, bereziki nabarmena enplegu galeran eta diru sarrera publikoen murrizketan.*

*Krisia 2008tik baldin badator ere, Gobernu Zentralak hartu dituen neurri bakarrak – eta banan banan foru aldundiak kopiatutakoak- errenta altuenei zergak murrizteko*



*izan dira, progresibitate printzipioaren aurkakoak erabat. Sozietateen zerga murriztuda, PFEZa, eta ondarearen gaineko zerga kendu da. Horrek guzti horrek arrisku bizian jarri du gizarte zerbitzuen eta politika publikoen finantziazioa.*

*Zapateroren gobernuak, NDFren eta Europako Batasuneko aginduei jarraituz, galera horiek, besteak beste, BEZA igota hiritar guztiak edo pentsioak bere horretan utziz pentsiodunek ordaintza gura du.*

*Proposatzen ari diren gizarte murrizketa neurrien aurka gaude, gure iritziz erabat okerrak direlako, langabezia handiagoa sortu behar dutelako eta gutxiago daukaten pertsonen aurkakoak izango direlako.*

*Egungo egoera larria arintzeko, behar beharrezkoa da zergen progresibilitatea berreskuratzea gehiago duenak gehiago ordain dezan, eta diru-kutxa publikoek zerga kudeaketa txarraren ondorioz galduak fondoak berreskuratu ditzaten.*

*Horregatik, ondorengo mozioa aurkezten dugu:*

- 1.- *Eskoriatzako Udaleko Udalbatzarrak Gobernuari eskatzen dio Diputatuengongresuan maiatzaren 12an aurkeztutako "doitze plana" bertan behera uzteko.*
- 2.- *Udalbatza sistema publikoko pentsioak ez igotzea edozein neurriren aurka dago eta Gobernu Zentralari, bereziki, eskatzen dio doitze neurriren artetik kentzeko 2011n pentsioak ez igotzearena eta erretiro partziala hartzeko baldintzak aldatzen dituztenak.*
- 3.- *Udalbatzak Gobernu Zentralari, hiru foru aldundieei eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen die berehala berreskuratzeko ondareari buruzko zerga, horrek zergetan 2.200 milioi gehiago batzea ekarriko lukeelako, -zerga hori azken aldiz indarrean egon zenean (2007) aurreikusitako diru bilketaren arabera-, eta beraz, ez litzateke beharrezkoia izango pentsioak murriztea edo horiek jasotzea baldintzak gogortzea.*
- 4.- *Udalbatza langile publikoen soldata murrizteko edota horiek ez igotzea edozein neurriren aurka dago eta Gobernuari, bereziki, eskatzen dio doitze neurrietatik kentzeko horietan eragina izan ditzaketenak.*
- 5.- *Udalbatzak Gobernu Zentralari eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen die berehala deitzeko indar politikoen ordezkariei zergak aldatu eta progresibilitatea ezartzeko neurriak hartzeko, horrela gehiago dutenek edo gehiago irabazten dutenek gehiago ordain dezaten eta neurriak har daitezen finantza erakundeen eta eragiketa espekulatiboen gaineko zergatik batutako diru kopurua handitzeko, horrela beharrezkoia ez izateko langile publikoei soldata murrizteko edo enplegua doitzea neurriak hartzea. Neurri horien artean egon beharko da ezkutuko ekonomiaren eta zerga iruzurraren aurka borrokatzeko Plan zorrotza. Horretaz gain, administrazio publikoek gastua arrazionalizatzeko neurri eraginkorrik hartuko dituzte kalitate eta eraginkortasun handiagoa bilatzu.*
